

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

28/2020 Mozioa, ekainaren 12koa, alarma egoera eta haren ondoriozko konfinamendua bukatuta COVID-19k eragindako krisiaren aurretik ere etxebizitza-esklusio egoeran zeuden pertsonentzako arreta mantentzeari buruz

Arabako Batzar Nagusi hauetako Gizarte Ongizatearen VII. Batzordeak, 2020ko ekainaren 12an egindako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

28/2020 Mozioa, ekainaren 12koa, alarma egoera eta haren ondoriozko konfinamendua bukatuta COVID-19k eragindako krisiaren aurretik ere etxebizitza-esklusio egoeran zeuden pertsonentzako arreta mantentzeari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Eusko Jaurlaritzarekin, gainerako foru-aldundiekin, EUDELekin eta borondatez planarekin bat egin duten udalekin elkarlanean gauzatuko duen 2018-2021 aldirako Etxerik gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia ezartzeko esparruan txerta ditzala COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz kolektibo horrek dituen erronka eta eskaera berriak.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote gizarte-bazterketa baloratzeko tresnak adierazten badu bazterketa badagoela, pertsona horri baliabide egokiak eman diezazkiola, dituen beharrei erantzun ahal izateko.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote gizarte-bazterketaren arloko zerbitzuei zuzenduriko jarduketa-protokolo bat diseina dezala; protokolo horrek alarma-egoera bukatu ondoren izango dugun agertokiari aurre egiteko segurtasun sanitarioko neurriak jaso beharko ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 12a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA